

MUEBLES INCHAUSTI (1963)

Lasarte'n dagon etxe on batek eskeintzen dizu **ostatu**, an dauden gauza zoragarriak bixitatzen **prestatu**. Apain dotorez, berdiñik ezta; iñola ezin **puskatu**, **mueble** bearrez baldin bazera **Intxausti**'nean **eskatu**!



Doinua:

Menditarra naiz eta gogoan Zortziko handia

EDAN ZAZU, INSALUS! (1963)

Gorputza ondo eztagonean eztago barren **girorik**, sendagai ona eskutan dezu: etzazu galdu **denborik**! Bein artzen dunak eztu izaten berriz uzteko **gogorik**, **mairako urik** ezpaita sortu **INSALUS BEZELAKORIK**



Doinua:

Loreak udan ihintza bezela / Zortziko handia


BAR LANDETA (1969)

Zer nai, artatik errez ba-dezu edanetan da **janetan**, **ostatu** onen sona zabaldu zaigu alderdi **danetan**. Zure zai beti zabalik dago; ez da trabarik **atetan**, gorputza premiz dezun guzian sartu zaitea **Landeta**'n.



Doinua:

Pello Josepe tabernan dela Zortziko handia



1969ko irailak 7

REINETA KARMELUA (1965)

Lakartasunak etortzen dira tabako asko **erreta** barren kañuak dauzkagulako sarri zikiñez **beteta**. Gaur **karmelu** arrigarriak botika orde **daude-ta**, sendatuzale baldin bazera eskatu zazu **Reineta**!



Doinua:

Hara nun diran mendi maiteak Zortziko handia